

Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek blogak erabili dituzte proiektuen oinarri

2008/06/23

Ikasurte honetako bigarren lauhilekoan, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearen Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek, 1. mailakoek, proiektu bat egin dute, komunikazio proiektu tematiko bat sarean, blog bat. Proiektu horren helburua izan da proiektu erreal bat egitea, hau da, ikasleek lanean izan dezaketean lan eskakizun bat ikasgelan bertan praktikatzea.

Proiektu diziplinartekoa

Proiektu honetan bost ikasgai uztartu dira:

- Idatzizko Informazioa eta Komunikazioa I.
- Komunikazioaren Teoria eta Informazioaren Teoria I.
- Web 2.0.
- Ingelesa.
- Lengua.

Ikasgai bakoitzean ikasleek epe batzuk izan dituzte hainbat testu mota sortu eta zuzentzeko: elkarrizketa, albiste, erreportajea, kronika, azalpena, iritzi artikulua eta soslai. Ondoren, Web 2.0 ikasgaia erabili dute materiala blogean argitaratzeko. Testu mota horiek aberastu egin dituzte, beste era bateko baliabideak erabilita: argazkiak, bideoak, loturak, audioak eta mapak. Bukaeran, talde bakoitzak aurkeztu egin du lanaren emaitza, horretarako Google Docs aplikazioa erabilita

Blogak

- Musikon. Musika aztertzeko.
- Infernuko hauspoa. Trikitixaren bilakaera.
- Debagoiena Street Music. Musika Debagoienean.
- Luma-gabeak. Euskal literatura.
- Titiriteroak. Antzerkia.
- Kuxkuxean. Reality showak.
- Bidaide. Bidaiak.
- A golpe de bisturí. Kirurgia estetikoaren ondorioak.
- Bikingoak. Suedia.
- Gay, lesb, transex.

